

TALDE PRESIOA

Jardunbide egokiak FAMILIAN



Aurkezpena

Esku-hartze Komunitarioko Zerbitzuak, herritarren artean, osasuna sustatzeko eta biztanleriaren bizitza kalitatea zein gizarte ongizatea hobetzeko helburua dauka. Horretarako, **ADIMEN EMOZIONALA ETA BIZIKIDETZA** Programarekin, haurrak direnetik beren adimen emozionala garatzeko gai izan daitezela eta bizitza kudeatzen ikas dezatela lortu nahi du. Beren buruarekiko kontzienteago izateko modu kreatiboak ikasiz, gatazkei aurre eginez, emozioak erregulatuz, modu kritikoa pentsatuz, eta horrela, bizi diren gizarteko kide aktibo eta arduratsuak izateko baliabideak dituzten pertsona helduak izatera iristea dauka helburu programak.

TALDE PRESIOAREN gaiari dagokionez, 6. mailan, tailer praktiko bat egin da, bertan da ikasleek ezetz esaten jakiteko eta, era horretan, taldearen presioari aurre egiteko beharrezkoak diren tresnak eskuratzea lortu nahi izan da.

FAMILIAN ikasten direnez bizitza osoan izango ditugun **OHITURA** ETA balio gehienak, garrantzitsua da familiak ikastetxean egiten den lan horri babesa ematea.

Gurasoek gainerakoekiko harremanetan mugak jartzen eta "ez" esaten erakutsi behar diete hurrei, bestela arazoak izan baititzakete, nerabezaroan eta helduaroan batez ere.

Adingabeek egoera askotan izan beharko dute gai "ez" esateko, gaizki sentitu gabe eta bestea mindu gabe. Monosilabo negatiboa bada ere, "ez" esatea gauza ona da, eta inork ez du gaizki sentitu behar horregatik, bakoitzak bere nortasuna eta bere gustuak baititu.



Koadrila eta taldearen presioa

Adingabeek txiki-txikitatik nahi izaten dute “koadrila” batekoa izan; funtsezkoa da haientzat.

Taldeak eta koadrilak sortzea garapenaren etapa bati lotuta dago. Koadrila batean, gurasoekin eta helduekin bizi izandako harreman-arazoen konpentsazio moduko bat bilatu ohi da. Harreman ideala bizi nahi izaten da, arazorik eta mugarik gabe. Aldi berean, norberaren indibidualtasuna berretsi eta norberaren nortasuna sendotu nahi izaten da, eta hori, eremu kolektiboan, autonomiarako lehen hurbilketa bat da.

KOADRILA IZATEAREN EDO EZ IZATEAREN ARRISKUAK:

Alde batetik, koadrila batekoa izateak TALDEAREN PRESIOA dakar beti, eta koadrila horrek arrazoizkoa edo komenigarria ez den zerbait bilatzen duenean, koadrila horren presioaz libre geratzea ez da erraza izaten.

Baina, bestetik, neurri handiagoan edo txikiagoan antolatuta dagoen koadrila bat gabe bizitzeak premia bat bete ez dela esan nahi du. Aukeratutako benetako koadrila baten aberastasun hori ez duten beste talde batzuen presiopean bizitzeak (klase, lan-talde edo kirol-talde baten presiopean, alegia) ez dio erantzuten gizabanakoak harreman natural eta librean izateko duen premiari.

Taldea beharrezkoa da, eta haren presioa, askotan, funtsezkoa da pertsona bakoitzaren garapenerako. Gauzak ez dira konpontzen taldetik ihes eginez, ezta akatsik gabeko jokabidea duten adiskideen hautaketa bikain bat egiten saiatuz ere.



“EZ” ESATEN ERAKUSTEKO MODUA

Hurrek txikitatik gainerakoekiko harremanetan mugak jartzen ikasten badute, helduarora iristean arazo gutxiago izango dituzte beren gizarte-harremanetan.

Gutako bakoitzak bere gauzak, bere denbora, bere gorputza eta bere erabakiak kontrolatzen dituela azaldu behar diegu adingabeei.

Erakutsi hurrei:

😊 **BESTE PERTSONEI AKTIBOKI ENTZUTEN**

Beste pertsona batek esaten digunarekin ados ez bagaude ere, esaten digun hori uler dezakegu eta haren ikuspuntuarekin enpatiza dezakegu.

😊 **EZEZKOA ESKUBIDE GISA ADIERAZTEN**

Gure burua justifikatzen badugu, beste pertsona gure argudioei buelta ematen has daiteke, eta justifikaziorik gabe utz gaitzake. “Ez” esatea azalpenik edo arrazoirik behar ez duen eskubide bat da, eta, beraz, ez da beste pertsonaren ohiko probokazioetan erori behar.

😊 **GAINERAKOEK ESKAINTZEN DIZKIGUTEN PROPOSAMENEN INGURUKO ALTERNATIBAK EMATEN**

Era horretan, akordioetara iristeko interesa dugula erakutsiko diogu besteari, batzuetan ezinezkoa bada ere. Nolanahi ere, egoera bakoitza eta inguruabarrak aztertu beharko dira.

😊 **BESTEAK EGITEN DIZKIGUTEN XANTAIA EMOZIONALEN AURREAN AMORE EZ EMATEN.**

Argi eta garbi jakinarazi behar dugu ez dugula zergatik egin behar egin nahi ez dugun zerbait, eta gure erabaki eta ikuspuntu propioei dagokienez inork ez gaituela ezertara behartu behar.